

**ESTERIBARKO ELKARTEEK ANTOLATZEN DITUZTEN EUSKARA SUSTATZEKO ETA JARDUERA
SOZIOKULTURALAK LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA.
2019.URTEA**

Esteribarko Udalak jarduerak antolatzeko diru-laguntzak emanen ditu, arau hauen arabera:

ARAUAK

Deialdi honek Esteribarren helbidea duten Elkarteak diruz laguntzeko araudia ezarri nahi du, honako esparru hauetan egiten diren jarduerak sustatzeko: jarduera sozialak, kulturalak eta euskara sustatzea helburu dutenak eta Esteribarren egiten direnak.

1.1. KULTURA

Diru laguntza jasotzen ahal duten proiektuak Esteribarko herritarrei zuzendutako jarduera kultural eta sozialak izanen dira eta Esteribarko bizialdian parte hartzea sustatuko dutenak maila sozial, kultural, asoziatiboan zein ludikoan.

Deialdi honetatik kanpo geldituko dira: asistentziatzko jarduerak (antolatzaileen soldatak, dietak, kilometrajea...) aktibitate gastronomikoak (hamaiketakoak, bazkariak, merenduak...) Elkartearen helburuarekin bat ez datozen eta Esteribarko dermiontik kanpo egiten diren jarduerak, edo elkarte edo kolektiboaren gastu orokorrak, aktibitateak abian jartzeko beharrezkoak diren materialak zein mantendura zuzendutakoak. Materialei dagokienez, kasuz kasu aztertu ahalko da kostearen zati bat diruz laguntzea, diru laguntzaren xedea den jarduerarako beharrezkotzat joz gero.

Bidaiak ere deialdi honetatik kanpo gelditzen dira, interes kultural berezikoak baldin ez badira.

1.2. EUSKARA

Diruz lagunduko dira euskarazko normalizazioa helburua duten jarduerak, hau da, euskararen erabilera funtzionala zabaldu nahi dutenak eta Esteribarko euskaldunei euskaraz bizitzeko aukera berriak eskaintzen dizkietenak.

2.- AURREKONTU KONTSIGNAZIOA:

Diru-laguntza horiek, Esteribarko Udalak 2019. urteko aurrekontuaren ondorengo diru-sailetatik ordainduko dira, eta hein batean edo bere osoan egonen ahalko da bideratua:

- Jarduera soziokulturalak egiteko diru-laguntza eskabideetarako 3340 48200
- Euskara sustatzeko jardueretarako 3350 48200

3.- DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK.

3.1. ELKARTEENAK:

- a) Eskaera egiten den egunean legez eratuta egotea.
- b) Helbide soziala Esteribarren izatea.
- c) Tokiko Elkartearen Udala Erregistroan inskribatuta egotea (edo inskripzioa eskatuta izatea eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen) eta erregistroko datuak eguneratuak izatea.
- d) Ordaindu beharreko zergak ordainduta izatea (udalarenak eta bestelakoak), baita Segurtasun Sozialaren kuotak ere.

3.2. PROGRAMATUTAKO JARDUERENAK:

- a) Publikoak izatea eta jarduera zuzendurik dagoen Elkartearen Esteribarko kide guztiei irekiak izatea.

b) Diruz lagundutako jarduera guztien berri emanen da bakoitzari dagokion udal arloan garaiz eta beharrezko datu guztiak emanez, udal web orrian eta agendan horren berri argitara dadin.

4.-ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA.

Eskaerak aurkezteko epea bi hilabetekoa da deialdiaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik. Epea luzaezina izanen da.

5.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Eskabidea, behar bezala beterik, deialdi honetan parte hartzea eskatzeko.
 - Diru-laguntza eskatzen den jarduera bakoitzeko fitxa (l. eranskina)
 - Elkartearen edo Entitatearen kontu zenbakia, emandako diru laguntzaren ordainketa egiteko.
 - Beste diru-sarrerarik edo laguntzarik izan den azaltzen duen adierazpena, publikoa zein pribatua.
 - Zerga arloko betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Udalarekiko tributu arloko betebeharrak ordainduta dituzten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko dituzte.
- Fitxak Udal-Bulegoan eta Udalaren web orrian hartu ahalko dira (www.esteribar.org).

6.- BALORAZIOA

6.1. Informazio- Batzordeak, 6.2 puntuan adierazten diren irizpideei jarraikiz, eskaerak baloratuko ditu eta Udalaren Osoko Bilkurari diruz lagundu beharreko erakunde eta jardueren zerrenda eta zenbatekoak proposatuko dizkio. Diru-laguntzen zenbatekoa jarduerak burutu izanak zein horien benetako kostuak baldintzatuko dute.

Informazio-Batzordea ondokoek osatuko dute: Herritartasuna sustatzeko eta Gizarte eta Kultur Gaietako Batzorde Informatzaile Iraunkorra osatzen duten kideek. Batzorde horren osaketa 2015ko uztailaren 2an egindako ezohiko Osoko Bilkuran ezarri zen. Udaleko Euskara Teknikaria eta Idazkaria ere, dagokion akta jasoko duena, bertan egonen dira.

6.2.Proiektu edo jarduerak deialdi honetan onartzeko, ondoko irizpide orokorrak aintzat hartuko dira.

- Aurkeztutako programaren interesa eta kalitatea
- Jarduerak zenbat pertsonari zuzentzen zaizkien
- Proiektuaren parte-hartzea eta elkarten arteko izaera

7.- LAGUNTZEN ZENBATEKOA

7.1. Diru-laguntza, gehienez ere, jardueraren aurrekontuaren %50 izanen da. Entitate bakoitzak, gehienez ere, 3.000 euro jaso ahalko ditu.

7.2.Udalak aurrekontu errealararen % 100 ematen ahalko die jarduerari eta/edo proiektuei, baldin eta, dagozkion teknikariek aldeko txostena emanik, udalerrarentzako interes berezia dutela irizten badie.

7.3. Nolanahi ere, eta aurrekontuetan baliagarri dagoen diruaren arabera, eta zenbat eskatzaile dauden kontuan hartuta, beharrezko bada, era proportzionalean murriztuko da onuradun bakoitzarentzako ekarpena.

8.- ORDAINTZEKO MODUA

8.1 Diru-laguntzak honela ordainduko dira:

- %70 15 eguneko epean, Osoko Bilkurak emandako ebazpenaren datatik aurrera, aurrerakin gisa.

- Gainerako % 30 , 15 eguneko epean, deialdi honetako 9.puntuak dakarren justifikazioa egiteko dokumentazioa behin baloraturik eta beti ere hurrengo ekitaldiaren lehendabiziko hiru hilabete bukatu baino lehen.

9.- BETEBEHARRAK

Elkarte onuradunek honako betebeharrak izanen dituzte:

- a) Onartutako jarduerak eta emanaldiak egitea.
- b) Diruz lagundutako egitarauetan suerta daitezkeen aldatzeak esanguratsuak Udalari jakinaraztea.
- c) Ebaluatzaile bere eginkizunean laguntzea.
- d) Jardueren eta egitarauen propagandan, formatua edozein dela ere, Esteribarko Udala aipatuko da.
- e) Jardueren propaganda euskaraz eta gaztelaniaz egiten da. Puntu hau bete ahal izateko, Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahalko da (euskara@esteribar.org).
- f) Diruz lagundutako jarduerak beste erakunde baten diru-laguntza jasotzen badute, horrela adierazi beharko diote Esteribarko Udalari.

10.- GASTUEN JUSTIFIKAZIOA ETA JARDUEREN MEMORIA.

- a) Egindako jardueren memoria-txostena Udaletxeko Erregistroan aurkezteko azken eguna **2019ko abenduaren 13a** izanen da. Justifikazioa egiteko epea luzaezina izanen da. Epe horretan justifikatu ezin diren gastuetarako, jarduerak ondoren egiten delako, justifikazioa aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 15a izanen da.
- b) Honako agiriak aurkeztuko dira:
 - Kontzeptu hauek bilduko dituen memoria-txostena: egindako jardueraren azalpena eta partaideen kopurua. (II.eranskina)
 - Egindako jardueraren balantze ekonomikoa, jarduerarekin lotutako sarrerak eta gastuak azalduko dituen eta pertsona eskudunak sinatua (Diru-laguntzei Buruzko Lege Orokorraren 30.4 art.). II. eranskina)
 - Gastuen fakturak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak) honako datuak izanen dituztenak: dirua jasoko duen pertsonaren izen-abizenak eta IFZ, kontzeptua, zenbatekoa.
 - Populazioari jardueren berri emateko erabilitako esku-paper, kartel edo bestelako euskarrien kopia bana aurkeztuko dira.

11.- EBAZPENEA

11.1. 9.Aruak dakarren justifikazioa egiteko dokumentazioa behin aurkezturik, gastuaren onespena egiten da eta gainerako zenbatekoaren ordainketa (%30), Alkatearen ebazpenaren bidez. Beharrezkoa bada, hasieran Osoko Bilkurak emandako diru-laguntzaren aldatzeak edo moldaketak egiten da, programatutako jardueren betetzea eta gastuen justifikazioa kontuan hartuta.

11.2. Onespena Udaletxeko iragarki-taulan jakinaraziko da, bai eta Udalaren webgunean ere.

12.-EZ BETETZEAK

12.1. Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzen aldatzeak emate ebazpen aldatzea ekar dezake.

12.2. Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira honako kasu hauetan:

- a) Onartutako jarduerak ez justifikatzea.
- b) Diru-laguntza eskatutako baldintzak bete gabe lortzea.
- c) Diru-laguntza jasotzeko deialdi honek jarritako baldintzak ez betetzea.

12.3. Ikuskaritza eta kontrol funtzioak gauzatzekoan, diru-laguntza era oker batez lortu edo erabili egin dela antzematen bada, Udalak gaiarekin lotutako fakturak edo agiriak atxiki ahalko ditu.

13.-ARAUTZEKO LEGEDIA

Dokumentu honetan bildutako oinarriek arautuko dute deialdi hau. Aurreikusita ez dagoenerako, berriz, deialdia arautegi honi lotuko zaio:

- Udal diru-laguntzak emateko Ordenantza (NAO 50.zbkia, 2005eko apirilaren 27koa)
Esteribarko Udalaren 2015rako Aurrekontua betearazteko oinarriak eta, bestela, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea
- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 13/2007 Foru Legea eta, haren ordezt, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorra.
- 887/2006 E.D. (Erregelamendua).

